# 'Oinak kantuz', burua dantzan

- Aiko kultur elkarteak bere zazpigarren lan diskografikoa argitaratu du
- Album berriak dantza tradizionaleko 19 konposizio original biltzen ditu

**A. SANTANA**
BILBO

GURETZAT tradizioa oso garaikidea da". Hala uste du Patxi Laborda dantza-maisuak, Aiko kultur elkarteko kide dena. Izan ere, aipatu taldeak atzo aurkeztu zuen Bilboko Elkar Aretoan disko berria, *Oinak kantuz*. Dantza tradizionala sustatzeko xedez, bere zazpigarren lan den honek 19 musika-konposizio original biltzen ditu, bertan jotak, jauziak, pasodobleak baita txotiak eta tango bat ere interpretatzen direla. "Pieza berriak dira, modu tradizionalean landuta", argitu zuen Labordak. Dantzariarekin batera aurkezpen lanetan aritu ziren Sabin Bikandi (konpositore eta txistu-jolea, besteak beste), Alvaro García (gitarra) eta Asier García (danborra).

Prentsaurreari hasiera eman baino lehen, Aiko taldeak ekoitzitako bideo baten emanaldia eskaini zen liburu-dendan. "Barkatuko gaituzue emozioa, baina bideoklip baten antzeko zerbait egiten dugun lehen aldia da", desenkusatu zen Bikandi, irribarrez.

Aiko kultur elkartea –aurten bere bosgarren urteurrena ospatzen duena–, aspalditik dabil musika eta dantza tradizionala "komunikatzen, kutsatzen, garatzen, hedatzen eta irakasten", baina hori guztia gutxi balitz, "dantza egiteko modu erraz eta naturala" aldarrikatzen dute, "lotsa eta konplexu guztiak" albo batera utzita bakoitzak bere erara dantza egin eta dantzaz goza tu dezan. Eta dantza egiteko musika ezinbestekoa denez, *Oinak kantuz* diskoa sortzea erabaki zuten Aikokoek.

Izenburuak lelo honi egiten dio aipu: *Dantzan ez dakiena, beti dau kontetan; dantzari ona berriz, hankakez kantetan*. Bikandik argitu zuen honen esangura: "Dantzan egiten ez dakiena, beti dabil *bat, bi, hiru, bat, bi, hiru* pausuekin goratabehera; baina dantzariak, aldiz, oinekin hitz egin, *kantu* egiten du".

Disko honek euskal musika tradizionalari leial dirau, hainbat estilo nahasten badira ere. Esaterako, aipagarria da *Marijo* izeneko doinua, hots, "egitura librea duen tangoa", musikari eta dantzariek zehaztu dutenez. "Euskal Herriko tangorik onenera hautatuak gaude", iseka egin zuen Bikandik. Horrez gain, nabarmentzekoa da ere lehenbiziko pieza, *Aitona Txomin*, istorio bitxia hartzen baitu bere baitan: "Primo de Riveraren diktadura garaian, elkar heldutako dantzak debekatuta zeuden –azaldu zuten Aikoko kideek–; ondorioz erromerietan jotak, porrusaldak eta biribilketak baino ez ziren jotzen. Hala ere, jendeak pasodobleen antzera dantzatzen zuten elkarri helduta dantzatzeko".



Aiko taldeko lau kide, atzoko aurkezpenean. ARGAZKIA: JOSE MARI MARTÍNEZ

**MENDIZ MENDI**

- **Eszenatoki naturala.** Aurreko diskoekin herriz herri aritu bada Aiko taldea, 'Oinak kantuz' lan berria "mendiz mendi" aurkeztuko du.
- **Maiatzak 20.** Horrela, Urbiako Zelaietan (Gipuzkoako Aitzgorriko natur parkean) maiatzaren 20an izango da bere lan berriarekin.
- **Ekainak 3.** Bigarren erromeria ekainaren 3an ospatuko da, Arabako Gorbeia mendian, hain zuzen.
- **Ekainak 17.** Bizkaiko hitzordua, aldiz, ekainaren 17an izango da.
- **Ekainak 23.** Azken festa ekainaren 23an da, Dantzazale Egunean, hots, Dantzaldi ibiltaria programaren baitan urtero Durangon antolatzen den ekitaldia. Xehetasun guztiak www.aikotaldea.com webgunean kontsultatu daitezke.

**Elkarteak "lotsak eta konplexuak" albo batera uztera animatzen du jendea, dantzaz gozatu dezan**

**LOTSA-PROZESUA** Musikaz harago, dantzarien sexuaz ere aritu ziren atzoko aurkezpenean. "Dantzan, eta oro har, asoziazionismoan, %90a emakumeak dira –aitortu zuen Bikandik–, pixkana gero eta gizon gehiago animatzen ari badira ere". Horren harira, zera zehaztu zuen Labordak: "Gizonezkoaren lotsaprozesua oso bestelakoa da emakumezkoarekin konparatuz gero".

Belaunaldi berriei buruz galdetuta, Bikandi irmo azaldu zen: "Aiko taldeak oso argi du zer egin behar duen haurrekin: bakean utzi". Elkartearen aburuz, dantza ez da *umetu* behar, dantzan profesionalki aritu baino lehen hobe baita erreferente helduak izatea. "Haurrak eskola garaian hasten badira dantzan, nerabezarora helduta dantza umekeria dela pentsatzeko arriskua gerta daiteke", iritzi du Bikandik. "Edonola ere, 4 urteko umetxo bat dantzaria da berez", gaineratu zuen Labordak.

Azkenik, umorez jositako hitzaurreari jarraitu zion kontzertu labur eta inprobisatu batek. Jakina, Laborda maisu-dantzariak ezin zion musika goxoari muzin egin eta, emakumezko bikotekidea harturik, *oinekin abesteari* ekin zion.

## Sobre Madonna y la conciliación familiar

Los miembros de Aiko kultur elkartea comenzaron la presentación de su nuevo disco 'Oinak kantuz' con una aclaración: "Antes de recurrir a Kalakan, Madonna nos propuso a nosotros colaborar con ella, pero por motivos de agenda y sobre todo por cuestiones de conciliación familiar —tenemos críos que cuidar y comidas con la suegra a las que asistir—, tuvimos que rechazar su propuesta, aunque no se lo ha tomado a mal", bromearon Sabin Bikandi, Patxi Laborda, Asier García y Álvaro García. Por su parte, el bertsolari Andoni Egaña tampoco se libró de ser objeto de chanza de los músicos y dantzaris de Aiko taldea. "Estamos algo picados porque también queremos que nos pongan cables por la cabeza", confesó Bikandi quien, ya en serio, enumeró los beneficios de la danza para salud física y mental (temática que aborda cada sábado en el suplemento Ortzadar de DEIA). De hecho, más allá de los discos que publican y los talleres y clases que imparten, Aiko taldea colabora asiduamente con asociaciones que ayudan a combatir las consecuencias del Alzheimer. "Bailando se trabajan aspectos como la memoria o la coordinación", señaló Laborda. **>A. S.**

# The Uski's regresa con su rock de sabor marino

LOS VIZCAINOS PUBLICAN SU CUARTO DISCO, **'TXIMINOTAN'**, UN CD DE "ROCK RÁPIDO Y TOQUES POP"


The Uski's presenta su cuarto disco, titulado 'Tximinotan'. FOTO: DEIA

**ANDRÉS PORTERO**

BILBAO. A caballo entre Elantxobe e Ibarrangelu se creó el grupo The Uski's, en 2003, aunque su debut, *Itxosun zarati*, no llegó hasta un par de años después. Su música, siempre con olor a salitre y en un euskera muy particular, alcanza ahora su cuarto disco, titulado *Tximinotan* (Baga Biga) y repleto de "rock and roll rápido con toques pop y hasta country", según los integrantes del cuarteto.

La unión de los hermanos Anartz y Oier Laka con sus primos y colegas Jon Zameza, Iñigo Eiguren e Iñaki Astoreka, siguiendo la costumbre familiar de "dar el cante"; propició la creación de un grupo que había editado su último disco, *Katuek bezala*, en 2009, y que atesora como un hito en su carrera –repleta de canciones rockeras sencillas y melodías sesenteras– haber compartido escenario en el BEC con Chuck Berry. Ahora llega su cuarto CD, *Tximinotan*, grabado en los estudios Musikon de Mungia en enero y febrero con la ayuda técnica de Iñigo Etxebarria, su primer técnico de sonido y ahora colaborador de Gatibu y Extremoduro.

*Tximinotan* (Pescando txipirones) es un álbum con dos velocidades, una más rockera y veloz, y otra tendente a las baladas. Pero las dos se pueden bailar. "No creemos que sea un disco tan rockero. Como siempre, hay pinceladas de ambos estilos. Como decimos nosotros, lo que nos sale", explican los integrantes del grupo. "El eje principal es el rock and roll rápido y seco, pero con toques pop, funk y hasta country", apostillan.

"Tal vez hayamos pasado de sonidos playeros a sonidos del mar", prosigue esta banda en cuyas letras actuales alternan los guiños marinos con el enamoramiento y las cuestiones sociales. "Las chicas siempre están ahí. Y la canción *Ere ke ere* es otra cosa. Nosotros y muchos amigos nuestros andamos bastante *jodidos* de curro. Muchos están en la calle, otros de ERE. Es hora de gritar a favor de los *currelas*: Jefe, cabrón", indica The Uski's, que reconoce no haber logrado todavía el sonido que buscan. "Grabar es llegar a una serie de acuerdos con el productor. Al final, lo que queda es el resultado de una serie de decisiones que hemos ido tomando en el camino entre todos".